

Elkar, Igela eta Erein argitaletxeek literatura unibertsala euskarara ekartzen egiten duten ahaleginak beste bi fruitu eman ditu: Virginia Woolfen «Farorantz» eta Curzio Malaparteren

«Larrua». Anton Garikano eta Jose Ramon Vazquezek itzuli dituzte, hurrenez hurren. Lehenak gizakiaren erraietarako bidaia dakar; bigarrenak, aliatuek hartutako Napolirakoa.

nen esku zeudela salatu izan zuten», azaldu zuen.

Igelako editore Xabier Olarra izan zen Curzio Malaparteren «Larrua»-z hitz egiten lehena. «Zortea dugu liburua hau, gaurkotatzen baldin ez duena, irakurtzeko aukera dugulako. Irakurtzea atsegina da, nahiz eta bertan kontaktatzen direnak gauza latzak izan», esan zuen. Narrazioan, Malaparterek 1943an aliatuak Napolin sartu zirenean gertatutakoaren kronika egiten du, eleberri formatuan.

Liburuaren itzulpen lanak egiten dituen Vazquezek gaineratu zuenez, Toscanako idazleak —benetako izena Kurt Erich Suckert zuen— «gerraren izuari» eskaini zizkion hiru liburuen artean bigarrena da «Larrua» eta 1949an Italian argitaratua izan zenean zein urtebete berandua go gor gaitzetsia izan zela ekarri zuen gogora: «Eliza katolikoak liburu debekatuen indeksean sartu zuen eta hainbat italiar ospetsuk, antipatriotiko eta moralgabea zela iritzi, gogorki kritikatu zuten». Denbora pasatu ahala, «gaitzespen garratzak» eta «laudorio sutsuak», bietatik jaso izan ditu eleberriak eta, hala, XX. mendeko literatur lan onenen artean sartzeaz gainera, liburuak «XX. mendea hobekien irudikatzen duen eleberria dela uste duenik ere bada», azaldu zuen Vazquezek. Olarrak zehaztu zuen gerraren bortizkeriak ez ezik, «askapenaren ondorengo lazgarritasunak» ere garrantzia dutela kontakizunean.

Introspektzioak eta gerrako izua, Woolf eta Malaparteren lumatik

Amaluz ARTOLA | DONOSTIA

Virginia Woolfen mundu introspektiboa eta Curzio Malaparterek «gerrako izurriak» deskribatzeko zuen era euskarara ekarri dituzte Anton Garikanok eta Jose Ramon Vazquezek. Lehena Elkar argitaletxearen Urrezko Biblioteka bildumaren barruan argitaratu da eta bigarrena, aldiz, Igelak eta Ereinek elkarlanean osatzen duten Literatura Unibertsala atalaren barruan. Biek hala biek jaso dute Eizieren eta Lakuako Gobernuko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza, eta batera aurkeztu zituzten atzo, Donostian egindako agerraldi batean.

Garikano izan zen orain ia bi hamarkada Woolfen «Farorantz» euskarara ekarri zuen lehena eta, orain urtebete obraren berrikuspenean egitea proposatu ziotenean, asmoa harriduraz hartu zuela onartu zuen: «Gero pentsatu nuen berak ere behin eta berriro idazten eta berridazten zituela testuak, izenburuak ere aldatzen zituen...» eta animatu egin zen. Hala, hizkuntza aldetik gaurkotuagoa eta «egungo irakurleari egokituagoa» dagoen bertsiotatu osatu du.

Ramsay familia eta Lily Briscoe dira Woolfek 1927an argitaratu zuen «To the Lighthouse» eleberriko protagonistak. Aipatu sendiak Eskozian duen oporlekua agertoki hartuta, hamar urteko aldean pertsonaiek izan duten eraldaketa du hizpide eta, batez ere azken eleberrietan ohi zuten bezala, Woolfek gertakarietara baino landu zituen pertsonaien barne-mundura darama irakurlea. Kasu honetan, obrak karga biografikoa ere badu. «Esan izan da Lily bere burua islatzen ote zuen. Virginia ere hala ibili ohi zen. Azkenean, azken ukitu eman eta bukatutzat ematen du koadroa», kontatu zuen Garikanok. Estilo aldetik,

autoreak adierazteko zuen modua eta metaforen erabilera aintzat hartuta, eleberria prosa lirikotzat hartua izan dela nabarmendu zuen: «Sartzen da pertsonaien barruraino, haien kezka, nahigabe eta itxaropenak agertzen ditu, pertsonaien psikologia aztertzen du. Berak erakutsi nahi duena da nola nagusitzen den isiltasuna, ze arazo ditugun ondokoarekin komunikatzeko».

Gaurkotatua

Woolfen ideiek duten gaurkotatua ere azpimarratu zuen Garikanok. Besteren artean, Londren jaiotako idazleak jendartearen gizonzkoek duten nagusitasunarekiko kritika eraman zuen literaturara, «batez ere hezkuntza alorrean. Bere bi anaiak unibertsitatean joan ziren eta berak ikasketak bere kabuz egin eta era autodidaktan ikasi zuen. Bostere legal eta ekonomikoak gizo-

BARNE-MUNDUA

Woolfek pertsonaien barne-mundua aztertzen du «Farorantz» eleberrian eta, zenbaiten ustez, autobiografikotik ere badu dezentze: «Lily, pertsonaia nagusia idazlea bera izan daitekeela esan izan da», azaldu zuen Garikanok.

GERRAKO IZURRIAK

Malaparterek Bigarren Mundu Gerraren ostera darama irakurlea. 1943. urtean aliatuak Napolin sartu zirenean gertatutakoaren kronika egiten du eta gerraren bortizkeriaz zein «askapenaren osteko lazgarritasunaz» dihardu.



Jose Ramon Vazquez eta Anton Garikano, ezker-eskuin, dagokien itzulpena eskuan dutela.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS